

Txotx garaia azkenetan da

■ Behin Aste Santua ezkerok ixten hasten dira sagardotegi gehienak ■ Aurten ere jende dezente ibili da sagardogileen hitzetan, baina normalean, asteburuetan gehiago eta astez gutxiago.

TXOTX garaia ari da bereak ematen. Urtarrila bukaeran ireki zituzten sagardotegiak eta behin maiatza etorri ezkerok gehientsuenak ixten hasten dira. Aurtengo kanpainak ez du iazkotik alde haundiegirik, sagardogileen hitzetan: azken urteetako tendentzia nabarmendu da espezioak espezio, astez jende gutxiago eta asteburuetan lepo ibili da.

Sagardoa edatera eta festara

Astez eta asteburuan sagardotegiko giroa ez da erabat berdina. Astez datorren jendea sagardoa probatzera gehiago etortzen da, eta normalean lasaixeago. Asteburuetan koardila haundiak eta gehiago izaten dira, sagardotegira bai baina parranda pixka bat egitera ere etortzen direnak. Aurten ere Bizkaia, Nafarroa, Araba eta beste hainbat lekutako jendea ibili da Hernanin.

Enboteilatzen

Txotx garaia bai baina sagardotegiko martxa ez da maiatzean bukatuko. Dagoeneko sagardoa enboteilatzen hasiak dira eta urte osoan banatuko dute han eta hemen. Gehiena Gipuzkoan banatzen bada ere, asko ari da zabaltzen sagardoa: Kantabriara, Madrilera, Bartzelonara...

Aurtengo sagardotegiko dagokionez, beharxeagoa ote zeterren esaten zen txotx kanpaina hasieran, baina, orain ikusi beharko da botilan zein joera hartzen duen. Izan ere, txotx garaia bukatu da, baina, sagardotegira urte osoa da, gusto duenarentzat. □



Otsua Enea sagardotegian txotx egiten, joan den larunbatean.

■ ERRUBIA -EUSKADIKO KOPA

Hernani B-k ere irabaziz bukatu du denboraldia

■ Sestaoren kontra 32-3 irabazi zuten atzo Landaren ■ Agian, Gipuzkoako Kopa jokatu dute orain.

BIGARREN taldeak ere bukatu du errugbi denboraldia, eta Sestaori egurra emanda gainera. Bigarren taldearen helburu nagusia da lehen talderako jendea preparatu eta harrobiari eustea eta aurten azken urteetako jenderik gehientsuena izan du Hernanik bigarren taldean ere. Hernaniko Lehen taldeak, berriz, hirugarren bukatu du aurten eta Santander liderrarengandik 5 puntu eskasera. Gainera, Hernanik juxtu juxtu galdu zuen Landaren Santanderren kontra, eta han hebaindu ederra eman zion azken partiduan liderrari. Hernani da



Hernaniko bigarren taldea atzo Landaren, partidua bukatu ostean.

kategorian atzerritarrik ez duen talde bakarra eta aurtengo taldeari eustea lortzen badu, eta progresioari segi,

datorren urtean mailaz igotzeko borrokan sartzeko aukera haundiak dituzte Joxe Elosegi entrenatzaileak Kro-

nikari esan dionez. Lehen eta bigarren taldearen artean seniorretan 54 jokalaririk dituten Hernanik. Bada zer bait. □

JUBILATU ETXEA


Castejonera egun pasa

JUBILATU Etxeak egun pasa antolatu du Castejonera, apirilaren 24rako. Sorteo datorren asteazkenean egingo da Jubilatu Etxean bertan, arratsaldeko 17:00etan. □

Squash eta tenis txapelketa kiroldegian

KIROL Patronatuak antolatuta squash eta tenis txapelketak izango dira Hernanin. Txapelketak emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat dira, behar adina jende apuntatzen bada, beti ere. Izen ematea kiroldegian egin behar da apirilaren 30a baino lehen. Informazio gehiago 552185. □

■ BOLA



Ibon Miner.

Ibon Minerrek ezin

ATZO aukera haundiak zituen Ibon Minerrek erregularitatea irabazteko, baina, lesionatuta dago Ereñotzuko gaztea eta atzo lasartera joan bazen ere ezin izan zuen 23 brila baino gehiago bota. Honenbestez 3garren postutik 15garrenera jeitxi da Miner. Lehen hernaniarra Migel Burugain izan da 7garren, 419 punturekin; Joxe Ugalde 10garren izan da 413rekin eta 14garren Antonio Miner 410ekin. Ibon Minerrek 409 brila bota ditu. Irabazlea German Gereñu legazpiarra izan da 434 brilarrekin. Atzo bestalde Migel Arrospide 3garren izan zen 43 brilarrekin.

YONE
boutique
Kale Nagusia 63
Hemen erosiz,
Tenerifera joan
zintezke
50 euroko
erosketatik
zozketarako
boleto bat
Zure moda Hernanin bertan

YONE
boutique
Kale Nagusia 63
Hemen erosiz,
Tenerifera joan
zintezke
50 euroko
erosketatik
zozketarako
boleto bat
Zozketa: 2003ko Ekainak 28ko
loteriarekin

ETXE ONENAK. S.A.
GARAJE ITXIAK
"OBLATOS"ETAN
SALGAI
Informatu eta saldu:
943 33.22.37

GSE
Lan aholkularitza
Fiskala
Kontablea
Tel.: 943 550254
Faxa: 943 335801
Atzietza 51 - behea 20120 Hernani

Catalana Occidente
Aseguruak
Bautista Biurrarena Etxegoien
Kardaberaz 40 - behea
Tel.: 943 332440
Faxa: 943 556602
Mobila: 610 292701
20120 Hernani

EUSKERAREN ETA EGUNKARIAREN ALDEKO EKITALDIA

“Sortu diren elkartasun zubiak” mantentzeko konpromisoa eskatu zuen Egunkariaren Aldeko Batzordeak

■ Plaza Berrian egin zen ekitaldia larunbatean, Egunkariaren alde eta euskararen munduan erasotuak izan direnei elkartasuna adierazteko.

EGUNKARIAREN aldeko zenbait ekintza egin ziren larunbatean Hernanin. Ekitaldi nagusia Plaza Berrian izan zen eta bertan dantzari, txistulari, abesbatza, kantari, txalapartari eta bertsolariak izan ziren. Ondorenean Juan Mari Larrartek eta Pello Zubiriak hitz egin zuten eta Maite Telletxeak eta Juanjo Uriak irakurri zuten Egunkariaren Aldeko Batzordearen agiria.

Juan Mari Larrarte, Euskaldunon Egunkariko ordezkariek, Egunkari berri bat sortzeko konpromisoa azaldu zuen, eta guztion laguntza beharrezkoa dela nabarmendu. Bide horretan, horrelakorik berriz gerta ez dadin tresnak jartzen hastearen garrantzia azpimarratu zuen Larrartek. Pello Zubiriak sortzen hainbeste kostatuko Egunkaria itxi dutela ezin duela kontsentitu esan zuen. Beren kartzelaldiari buruz hitz egitean Hernanin horri buruz jendeak ez dakienik ez duela esango nabarmendu zuen, hernaniarrek kartzelari eta hango sufrimenduari buruz asko dakitelako. Zubiriak eskerrak eman zizkien berari eta familiari elkartasuna azalduz guztiei eta



Dantzariak egunkariaren aldeko pankartarekin.

esan zuen “kolore eta pentsakera desberdinetako jendeak azaldu duen elkartu nahiak” eman lezakeela aterabidea herri honentzat.

Dagoeneko 140 harpidedun Egunkariaren Aldeko Batzordearen izenean Telletxeak eta Uriak nabarmendu zuten Egunero ari dela Egunkariaren proiektu berrirako oinarriak jartzen. Hernanin 200 harpidedun berri egiteko helburura iristen ari direla ere

esan zuten, eta dagoeneko 140 badirela. Bukatzeko, euskararen munduan erasotutakoei elkartasuna eta babesa adierazi eta “guztionean sortu ditugun elkartasun zubiak mantentzeko” konpromisoa hartzeko eskatu zuten.

Ekitaldian, guztiek izan zituzten gogoan Xabier Oleaga, Xabier Alegria eta Iñaki Uri, Egunkaria ixteko egindako operazioa ezker, oraindik kartzelatan jarraitzen duten hiru lagunak. □

Gazte Txokoak Santiomendiko aterpetxera irteera antolatu du

■ Hilaren 25, 26 eta 27an da ■ Martxoko ekintzen balorazio oso ona egin du Gazte Txokoak.

GAZTE Txokoak apirileko asmoen berri eman du eta martxoan egindako ekintzen balorazio ere egin du. Apirilean Santiomendiko aterpetxera antolatu duten irteera da ekintzarik deigarriena. Apirilaren 25etik 27ra joango dira Santiomendira. Egonaldi horretarako joko eta ekintza ugari prestatu dituzte Gazte Txokoko monitoreek.

Bestalde, apirilaren 17, 18 eta 19an itxita egongo da Gazte Txokoa, Aste santuko oporrak direla-eta.

Emakumea eta berdintasuna Martxoan, emakumea eta ber-

dintasuna gaiaren inguruko ekintzak egin dituzte Gazte Txokoan, martxoaren 8ko ekintzen barruan, eta ardura-dunak oso gustora daude izandako erantzunarekin. Emakumea eta sexualitatea tailerra Miren Telleria sexologoak eman du eta Hernaniko hainbat neskak hartu dute parte. Horrez gain, rolen inguruko tailerra, ipui kontalaria, komiki ez sexisten erakusketa eta beste hainbat gauza ere izan dira. Ekintzetan Gazte askok parte hartu dute eta jarrera ere oso ona izan da Gazte Txokoko begiraleek Kronikari adierazi diotenez. □



Juana Maria Maganto hitzaldia ematen, Biterin.

Guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa nola hobetu azaldu zuen Juana Maria Magantok

HERNANI Institutuak antolatuta hitzaldia eman zuen Juana Maria Magantok Biteri kultur etxean. Guraso eta seme alaben arteko komunikazioa nola hobetu azaldu zuen. Magantoren iritziz gurasoek zenbait gauza izan behar dituzte gogoan. Besteak beste: ulertzen, entzuten eta erantzuten jakin behar dute;

hizketaldi irekiak izan behar dituzte seme alabekin eta beren iritzia ematen utzi; diskusiorik ez izatea zaila da, baina, harremana gaiztotzen ez da utzi behar; etxeko arazoetan seme-alabak inplikatzeko komeni da; fijas eta daukaten onena azaldu; lasaitasunak erantzun egokiak biltzen laguntzen du. □



Saxoka taldea Elgoibarko Lehiaketan.

Saxoka taldeak 3garren saria lortu du ‘Elgaibar Herria’ Lehiaketan. Hernaniko saxoka taldea 3garren gelditu da 12 urtez azpiko kategorian, Elgoibar Herria Instrumentu taldeen 2garren lehiaketan, apirilaren 5ean. Sei lagunek osatzen dute Saxoka: Ane Aierbe, Ane Apezetxea, Oihane Erize, Maddi Iradi, Miren Peñagarikano eta Asier Razkin.

KIROLA			ASTEBURUKO PARTIDUAK		
FUTBOLA			PELOTA		
Taldeak	Noiz		Taldeak	Noiz	
Gorengoak.	Berri-Hernani	1-2	Eremita - Galaretza		
1. Erejionala.	Aberri-Hernani	2-0	1) M atx III - Bn/O dir zo la Aginezabala	29-35	
Gazteen Liga Nazionala.	Hernani-Cmces	0-3	2) Ezkuma-Lizaso	31-35	
Gazteen Ohozerko Liga.	Arebabaleta-Hernani	3-3	3) Zeberri IFA izpuri/A luna II-Ekate	34-40	
Kadeteen Ohozerko Liga.	Hernani-Lagun Onak	1-0	4) Zeberri Handez/M atx III-B adib	27-30	
Kadeteen 2garren maila	Hernani-Usubil	5-3			
Haurren Ohozerko Liga.	Hernani-Touring	2-2			
ERRUGBIA					
Senior Kopa	Hernani-Sestao	32-3			
Jubentila 3-4 postua	Hernani-Ondiz	42-24			
Kadeteak, finalurrekoak	Hernani-Eibar	20-19			
Infantila	Hernani-Berri-Berri	20-15			
Infantila	Hernani-Fenk Zazagoza	20-10			
Alebrina	Eja-Hernani	10-10			
Alebrina	Hernani-Fenk Zazagoza	0-0			

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak:
943 550093
▶ Udaltzaingoa:
943 333288
▶ DYA:
943 464622
▶ Anbulatorioa:
943 006666
▶ Jokalari anonimoak
943 331103

✚ FARMAZIAK

ASTELEHENA	ASTEARTEA
▶ Egunez: Gomez Kale Nagusia 14 ☎ 943 554892	▶ Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
▶ Gaez: Arzallus Andoain. Plazao. 11P-25 ☎ 943 591514	▶ Gaez: Orue Lasarte. Jaizkibel plaz 2 ☎ 943 362652

IRAGARKI MERKEAK

Haurra zaintzeko neska euskalduna behar dugu. Ordeztua: Astelehenetik larunbatera 8:00etatik 16:00etara. Deitu: **943 55 20 98 (20:00etatik 21:00etara)**

Pertsona bat behar dut etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko, 08:00-12:00etara eta 16:00-20:00etara. **609 76 10 85 (20:00etatik aurrera deitu).**